



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

“ARABAKO KALKULU GUNEA, SA”

URTEKO KONTUEN MEMORIA – 2008KO EKITALDIA

1. OHARRA. IZAERA ETA JARDUERA GARRANTZITSUENAK

ARABAKO KALKULU GUNEA, SA (hemendik aurrera Sozietatea) foru sozietate publiko gisa eratu zen 1989ko uztailaren 26ko eskritura baten bidez. Hala Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak urte bereko martxoaren 14ko bilkuran onartutako 509. zenbakiko Foru Dekretuan ezarritakoa bete zen.

Sozietatea 15/87 Foru Arauan, Sozietate Anonimoen Legean eta legezko beste xedapen gehigarri batzuetan garatutako xedapenen arabera zuzentzen da. Haren kapital osoa Arabako Foru Aldundiak harpidetu eta ordaindu zuen, 1988ko urriaren 31tik aurrerako ondorioekin Arabako Kalkulu eta Informazio Lanketarako Gunearen Partzuergoa desegitetik eta ondoren likidatzetik etorritako ondarearen gauzazko ekarpenaren bidez.

Sozietatearen iraupena mugagabekoa da eta haren xedea eta jarduera garrantzitsuena informatika ustiapen eta garapenarekin zerikusirik duten zerbitzuak ematea da, baita zerbitzari, erabiltzaile edo txartel euskarrien ziurtapena eta elektronika, informatika eta telematikako bide eta tekniken bitartezko segurtasuna, balioa eta eraginkortasuna bermatzera zuzendutako zerbitzuak ere. Fakturazioa Arabako Foru Aldundiari, akziodun bakarrari, eta Arabako Lurralde Historikoko beste erakunde publiko batzuei



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

egiten zaie batik bat (12. oharra). Horrez gainera, bazkideen ekarpenen bitartez ere finantzatzen da, hain zuzen ere bazkideek akziodun bakarraren (Arabako Foru Aldundia) galerak konpentsatzeko egiten dituzten ekarpenen bitartez.

Sozietateak Gasteizen (Araba) du egoitza.

2. OHARRA. AURKEZPEN OINARRIAK

2.1. Irudi zehatza

Indarreko legeria betetzeko, Sozietatearen administratzaileek urteko kontu hauek egin dituzte orokorrean onartutako kontabilitate irizpideen arabera. Kontuek Sozietatearen ondarearen eta finantzen egoera eta ekitaldian lortutako emaitzak azaltzen dituzte, bai eta ondare garbian izan diren aldaketak eta eskudiru fluxuen egoeran islatu diren fluxuak ere.

Urteko kontu horiek kontabilitateko laguntza erregistroetatik abiatuta prestatu dira.

Sozietatearen administratzaileek uste dute 2008ko ekitaldiko kontuak aldaketa handirik egin gabe onartuko dituela Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak. Izan ere, Diputatuen Kontseiluak dauka akziodunen biltzar nagusia eratzeko eskumena eta berak hartu ditu haren eskumenak, Arabako Lurralde Historikoko 15/87 Foru Arauko 18. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Diputatuen Kontseiluak 2008ko apirilaren 29an egindako bilkuran onartu zituen 2007ko ekitaldiko kontuak.



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

2.2. Informazioa erkatzea

1514/2007 Errege Dekretua aplikatzen den lehenengo ekitaldia izanik, urteko kontuak hasierakotzat joko dira eta ez dira 2007koekin erkatutako kopuruak adieraziko. Hori dela eta, I. eranskinean 2007ko abenduaren 31an bukatutako urteko ekitaldiaren galera eta irabazien balantzea eta kontuak sartu dira.

2.3. Kontabilitateko arau berrietara igarotzearen ondoriozko alderdiak

4. oharrean zehaztu diren balorazio arauak erabili dira 2008ko abenduaren 31an bukatutako urteko ekitaldiko kontuak prestatzeko.

Kontabilitateko arau berrietara igarotzeak, 2008ko urtarrilaren 1ean, ez du eraginik izan Sozietatearen ondare garbian, salbuespen honekin: kapital dirulaguntzak ondare garbian sartu dira (99.540 euro); lehen “Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak” partidan zeuden.

1514/2007 Errege Dekretuko lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoarekin bat etorriz, Sozietateak 2007ko abenduaren 31an indarrean zeuden printzipio eta arauen arabera, irekiera balantzeko ondare elementu guztiak baloratzea erabaki du, finantza baliabideak izan ezik, horiek arrazoizko balioaren arabera baloratzen baitira.

I. eranskinean 2007ko abenduaren 31an bukatutako urteko ekitaldiaren galera eta irabazien balantzea eta kontuak sartu dira.



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

3. OHARRA. EMAITZEN APLIKAZIOA

Sozietateak 6.380.971,39 euroko galerak zituen 08/12/31n.

Administrazio Kontseiluak Akziodunen Batzar Nagusiari emaitzen banaketa hau proposatuko dio:

	<i>Euroak</i>
<u>Banaketa oinarria</u>	
- Ekitaldiko galerak eta irabaziak (galerak)	-6.380.971,39
<u>Banaketa</u>	
- Galerak konpentsatzeko bazkideen ekarpena	-6.380.971,39

4. OHARRA. BALIOESPEN ARAUAK

Sozietatearen urteko kontuak formulatzerakoan erabili diren kontabilitate irizpide eta arau garrantzitsuenak, jarraian azaltzen diren hauek dira:

4.1. Ibilgetu ukiezina

Ibilgetu ukiezina, informatika aplikazioak eskuratzeari dagokiona, eskuratze kostuan balioesten da, eta bere amortizazio metatutik garbi aurkezten da. Amortizazio hori % 20ko amortizazio koefizientea aplikatuz kalkulatzen da. Koefiziente hori ustez



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

sarrerak lortzeko behar den bizitza baliagarriaren baliokide da. Erabat amortizaturik dago.

4.2. Ibilgetu materiala

Ondasun ibilgetu materialak beren kostuaren balioaren arabera aurkezten dira, dagozkien amortizazio metatuak kenduta.

Ibilgetuaren zati bat Sozietatea eratu zenean Arabako Foru Aldundiak ekarritako ondasunen zenbatekoari dagokio, bidezko amortizazioak kenduta. Ondasun horien balioa bat dator Arabako Kalkulu eta Informazio Lanketarako Gunearen Partzuergoaren finantza egoeraren orrietan ekarpena egin zen egunean erregistratuta zegoen kontabilitateko balio garbiarekin (ikus 1. oharra).

Ibilgetu materialaren elementuak kostu balioen gainean amortizatzen dira, metodo linealari jarraituz, estimatutako bizitza baliagarriaren hurrengo urteetan zehar:

	<i>Bizitza baliagarriaren urteak</i>
- Instalazio teknikoak	7
- Altzariak eta etxeko gauzak	7
- Informazio prozesuetarako ekipoak	7

Erabat amortizaturik dago.



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

Ibilgetu materialak mantentzeko eta konpontzeko gastuak, ibilgetu horiek hobetzen edo beraien bizitza baliagarria luzatzen ez badute, galera-irabazien kontuan kargatzen dira sortzen diren unean.

4.3. Finantza tresnak

4.3.1. Finantza aktiboak

Merkataritzako eta merkataritzatik kanpoko eragiketengatik ordaindu beharreko kredituen balioa arrazoizko balioa da, eta hau bat dator balio nominalarekin, epealdia urtebete baino laburragoa baitute.

Saltzeko prest dauden inbertsioak arrazoizko balioarekin erregistratu dira. Ondare tresnetako inbertsioei (akzioak) dagokienez, eskuraketa balioa erregistratu da, behar izan den kasuetan narriaduragatiko zuzenketa aplikatuta. Horretarako Sozietateak partaidetza daukan erakundearen ondare garbia hartu du erreferentziatzat, hain zuzen ere onartutako azken urteko kontuetan islatzen dena.

4.3.2. Finantza pasiboak

Merkataritzako eta merkataritzatik kanpoko eragiketengatik ordaindu beharreko zor eta partidak balio nominalarekin bat datorren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira.



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

4.4. Mozkinen gaineko zerga

Ekitaldiko kontabilitate emaitza bat dator Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarri negatiboarekin.

Zuhurtasun irizpideari jarraiki, Sozietateak ez du kontabilizatu zerga oinarri negatiboaren ondoriozko zerga kreditua.

Gainera, Sozietateak % 99ko hoberia dauka Zergaren kuotan, 24/96 Foru Arauko 36. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.5. Sarrerak eta gastuak

Sozietatearen sarrerak Arabako Foru Aldundiari eta honek gehiengoko partaidetza duen enpresa eta organismoiei egindako zerbitzuetatik datoz.

Sozietatearen irizpidea azpikontrataturako zerbitzuen zenbatekoa fakturatzea da, Sozietateak egitura gastu guztien (funtsean, langile gastuen) balio bereko galerak sortuko dituela asumituz. Gastu horiek galerak konpentsatzeko bazkideen ekarpenekin estaltzen dira, ekitaldi berean. Horrek esan nahi du egindako zerbitzuak ez direla fakturazten merkatuko prezioetan, Sozietatearen xedea ez baita errentagarritasun ekonomikoa lortzea, baizik eta ezinbesteko zerbitzu bat ematea.

Sarrerak eta gastuak sortzapenaren irizpidearen arabera egozten dira, hau da, sarreren eta gastuen ondasun eta zerbitzuetako korrante erreala ematen denean. Sarrera eta



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

gastuen ondoriozko diru korrontea edo finantza korrontea gertatzen den uneak ez du eraginik izango.

4.6. Hornidurak eta kontingentziak

Sozietateak ondoko pasiboak onartzen ditu horniduratzat: kontabilitateko kontzeptuen esparruko definizioa eta erregistroko edo onarpenerako irizpideak betetzen dituztela, zenbatekoa edo kitatze data zehaztu gabe dutenak.

Ez dago aurreko betekizunekin bat datorren pasiborik.

4.7. Langileen gastuak erregistratzeko erabili diren irizpideak

Indarrean dagoen hitzarmen kolektiboaren arabera, erretiro aurreratua hartzen duten Sozietateko enplegatuek sari bat jasoko dute. Haren zenbatekoa zehazteko bi faktore hartuko dira kontuan: batetik, eskubidea eskatzen duten egunean jasotzen dituzten soldatak eta alokairuak; bestetik, egun horretatik nahitaez erretiratu arte (gaur egun 65 urterekin) falta diren urteak.

Kontingentzia hori estaltzeko Sozietateak hornidura egokia zuzkitzen du ekitaldi bakoitzean sortutako kopuruen arabera, kanpoko enpresek (Elkarkidetzak) egindako kalkuluetan oinarrituta.

Bidezko arrazoiren bat egon ezean, sozietateek kalte-ordainak eman behar dizkiete enplegatuei haien zerbitzugintza eteten denean.



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

Enplegua ezohiko moduan amaitzeko beharrik aurreikusten ez denez eta lana beren borondatez uzten duten enplegatuek edo erretiratzeko direnek kalte-ordainik jasotzen ez dutenez gero, kalte-ordainik eman behar izanez gero, ordainketak langileak kanporatzeko erabakia hartzen den unean bertan kargatzen dira gastuetara.

5. OHARRA. IBILGETU UKIEZINA

Partida honetan ez da gertatu aldaketarik ekitaldian; hona xehekapena:

<i>Kostua</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Gehikuntzak</i>	<i>Murrizketak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Aplikazio informatikoak	42.861,18	0,00	0,00	42.861,18
GUZTIRA	42.861,18	0,00	0,00	42.861,18
<i>Amortizazio metatua</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Gehikuntzak</i>	<i>Murrizketak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Aplikazio informatikoak	-42.861,18	0,00	0,00	-42.861,18
GUZTIRA	-42.861,18	0,00	0,00	-42.861,18
BALIO GARBIA	0,00			0,00



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

6. OHARRA. IBILGETU MATERIALA

Ibilgetu materialeko kontuetan ez da izan mugimendurik; hona xehekapena:

<i>Kostua</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Gehikuntzak</i>	<i>Murrizketak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Instalazio teknikoak	16.424,52	0,00	0,00	16.424,52
- Altzariak eta etxeko gauzak	63.861,78	0,00	0,00	63.861,78
- Informazio prozesuetarako ekipoa	16.412,05	0,00	0,00	16.412,05
GUZTIRA	96.698,35	0,00	0,00	96.698,35
<i>Amortizazio metatua</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Gehikuntzak</i>	<i>Murrizketak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Instalazio teknikoak	-16.424,52	0,00	0,00	-16.424,52
- Altzariak eta etxeko gauzak	-63.861,78	0,00	0,00	-63.861,78
- Informazio prozesuetarako ekipoa	-16.412,05	0,00	0,00	-16.412,05
GUZTIRA	-96.698,35	0,00	0,00	-96.698,35
BALIO GARBIA	0,00			0,00

Sozietatearen jardura osatzen duten zerbitzuak ematea, nagusiki, ondasun ibilgetu materialak erabiliz egiten da. Horien titularra Arabako Foru Aldundia da, Sozietatearen akziodun bakarra.



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

7. OHARRA. FINANTZA TRESNAK

7.1. Finantza aktiboak

Ondoren Sozietatearen finantza aktiboak biltzen dituzten partidak xehekatuko ditugu:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Epe luzea</i>	<i>Epe laburra</i>	<i>Guztira</i>
- Ondare tresnak	99.540,00	0,00	99.540,00
- Hirugarrenei emandako kredituak	21.405,15	29.353,82	50.758,97
- Beste finantza aktibo batzuk	1.214,65	0,00	1.214,65
- Taldeko enpresen eta enpresa elkartuen bezeroak	0,00	2.460.982,74	2.460.982,74
- Hainbat zordun	0,00	2.182.775,89	2.182.775,89
- Administrazio publikoekin egindako beste kreditu batzuk		41.308,98	41.308,98
GUZTIRA	122.159,80	4.714.421,43	4.836.581,23

7.1.1. Ondare tresnak

Inbertsioa Izenpe, SA merkataritza sozietatearen kapitalaren partaidetzari dagokio. Sozietate horren helburua telekomunikazio sareen gaineko gobernu elektronikoaren



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

erabilera sustatzea eta horren garapena indartzea da, segurtasuna, egiazkotasuna eta eragiketen atzerazintasuna behar bezala bermatuta.

Sozietatea 2002ko ekainaren 7an eratu zen eta beraren kapitala 1.200.000,00 euro da. Arabako Kalkulu Gunea, SAK 1.659 akzio dauzka, hau da, sozietatearen kapitalaren % 8,295.

7.1.2. Hirugarrenei emandako kredituak

Sozietateko langileek maileguak eta nomina aurrerakinak jasotzeko eskubidea dute, hitzarmenean ezarritako baldintzei lotuta.

Balantzeko zenbatekoa nomina aurrerakinei dagokie batik bat.

Hitzarmenean ondoko baldintzak ezarri dira aurrerakinak jaso ahal izateko:

- Gehieneko zenbatekoa: 6.044 euro
- Itzultzeko hiru aukera: 12 hileko, 24 edo 36



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

7.1.3. Taldeko enpresen eta enpresa elkartuen bezeroak

Hona zordunak, xehekatuta:

	<i>Euroak</i>
Taldeko enpresa zordunak	
<u>Taldeko enpresen bezeroak</u>	<u>2.460.982,7</u>
- Arabako Foru Aldundia	4
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	2.396.108,0
- Arabako Biltzar Nagusiak	9
- Artium Museoa	44.480,14
- Araba Garapen Agentzia	8.783,17
	4.825,84
	6.785,50

7.1.4. Hainbat zordun

Partida honetan Arabako Foru Aldundiaren zorra jasotzen da, bazkideek galerak konpentsatzeko egin beharreko ekarpenei dagokien zorra.



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

7.2. Finantza pasiboak

Finantza pasiboak “Zorrak eta ordaindu beharreko partidak” kontuan jasota daude; hona xehekapena:

	<i>Euroak</i>
- Beste finantza pasibo batzuk	32.607,95
- Hornitzaileak	2.755.981,92
- Langileak	207.377,00
- Administrazio publikoak	434.143,05
GUZTIRA	3.430.109,92

“Langileak” partidaren 2008ko ekitaldian helburuen arabera ordainsarietarako behar delako zenbatetsi den zenbatekoa jaso da.

Hona “Administrazio publikoak” partidaren xehekapena:

	<i>Euroak</i>
- Foru ogasun hartzekoduna (8. oharra)	306.702,23
- ‘Gizarte segurantzaren hartzekoduna	127.440,82
GUZTIRA	434.143,05



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

7.3. Norberaren funtsak

Hona partidaren xehekapena:

	<i>Euroak</i>
- Kapitala	808.164,70
- Erreserbak	2.629,82
- Aurreko ekitaldietako emaitzak	6.742,80
- Bazkideen beste ekarpen batzuk	6.959.057,9
- Ekitaldiko emaitza	1
	-
	6.380.971,3
	9
GUZTIRA	1.395.623,8
	4

7.3.1. Harpidetutako kapitala

Abenduaren 31n, Arabako Kalkulu Gunea, SAren kapitala 134.470 akziok ordezkatzeko zuten (bakoitzaren balio izendatua 6,01 euro zen). Akzio horiek guztiak Arabako Foru Aldundiak harpidetu eta ordaindu ditu, eta ondorioz Arabako Kalkulu Gunea, SA foru sozietate publikoa da.

Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Testu Bateratua aldatu duen Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko martxoaren 23ko 2/1995 Legeko 2. xedapen gehigarriaren arabera, Sozietatea pertsona bakarreko sozietate gisa erregistratu da Merkataritza Erregistroan.



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

7.3.2. Legezko erreserba

Sozietateak ekitaldi bakoitzeko mozkinen % 10 erreserba funts bat sortzeko erabili behar du nahitaez, harik eta funtsaren zenbatekoa sozietatearen kapitalaren % 20ra iritsi arte. Erreserba ezin da banatu akziodunen artean; galerak konpentsatzeko bakarrik erabil daiteke, horretarako beste erreserbarik egon ezean.

7.3.3. Erreserba berezia

Kapitala eurotara egokitzeagatiko diferentziei dagokie; ezin da erabili.

7.3.4. Bazkideen ekarpenak galerak konpentsatzeko

2008ko ekitaldian zehar Arabako Foru Aldundiak guztira 6.871.672,00 euro jotzen duten ekarpenak egin ditu galerak konpentsatzeko; ekitaldiko galerak, Akziodunen Batzar Nagusiak onartzeko daudenak, 6.380.971,39 euro izan dira. 2007an ekarpen soberakina gertatu zen: 87.385,97 euro. Kopuru hori 2008ko emaitza negatiboa konpentsatzeko aplikatu da. 2008ko ekitaldiko ekarpenen soberakina hurrengo ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzeko erabiliko da.



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

8. OHARRA. ZERGA EGOERA

Sozietateak Foru Ogasunarekin dauzkan saldoak honako hauek dira:

	<i>Euroak</i>
<u>Saldo zordunak</u>	<u>41.308,98</u>
- FOaren zorra atxikipenengatik	846,08
- FOaren zorra BEZarengatik	40.462,90
<u>Saldo hartzekodunak</u>	<u>306.702,23</u>
- FOaren hartzekoa PFEZ	306.702,23

8.1. Sozietateen gaineko Zerga

Kontabilitateko emaitza negatiboa bat dator Sozietateen gaineko Zergaren oinarri negatiboarekin.

Sozietateak ez du erregistratzen ekitaldi honetako eta aurrekoetako zerga oinarri negatiboen ondoriozko zerga kreditua, uste baitu ez dagoela inolako posibilitaterik berreskuratzeko.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, zergak ezin daitezke eman behin betiko likidatutzat harik eta zerga agintariek aitorpenak ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio epealdia pasatu arte. 2007ko abenduaren 31n, Sozietateak aplikatzen



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

zaizkion azken lau ekitaldietako zerga nagusi guztiak zerga agintarien ikuspenerako prest eduki ditu.

9. OHARRA. SARRERAK ETA GASTUAK

9.1. Negozioen zenbateko garbia

Ondoko taulan ekitaldiko negozioen zenbatekoa xehekatu da:

	<i>Euroak</i>
- Arabako Foru Aldundia	4.490.599,80
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	210.941,38
- Gazteriaren Foru Erakundea	96.845,64
- Arabako Biltzar Nagusiak	88.196,53
- Artium	6.000,00
- Alava Agencia de Desarrollo, SAU	11.699,14
- Beste batzuk	4.758,33
GUZTIRA	4.909.040,82

9.2. Ustiapeneko kontsumoak

Partida honetan Arabako Kalkulu Gunea, SAK birkontratutako zenbait enpresak egindako lanen ondoriozko zenbatekoak jasotzen dira.



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

9.3. Langileen gastuak

Hona hemen gastu hauen 2008ko abenduaren 31ko xehekapena:

	<i>Euroak</i>
- Soldatak	4.992.900,79
- Enpresaren konturako Gizarte Segurantza	1.152.681,93
- Pentsio sistema osagarrietara egindako ekarpenak	107.641,72
- Beste gizarte gastu batzuk	141.902,39
- Langileen ordainsarietarako horniduren soberakina	-233.203,58
GUZTIRA	6.161.923,25

- “Beste gizarte gastu batzuk” epigrafean hauek jasotzen ziren:

	<i>Euroak</i>
- Seme-alaben jaiotzagatiko laguntza	900,00
- Langileen prestakuntza	109.886,81
- Ekonomatoko gastuak	9.784,00
- Azterlanetarako laguntzak	4.655,37
- Enpresako medikuntza	10.986,21
- Hizkuntza ikastaroak	3.411,76
- Maileguen korrituen hobaria	2.278,24
GUZTIRA	141.902,39

10. OHARRA. HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

4.7. oharrean adierazi den bezala, Sozietateak hornidura bat zuzkitzen du erretiro aurreratua hartzen duten langileei saria ordaintzeko, hain zuzen ere hitzarmenaren arabera jasotzeko eskubidea dutenei.

Partida honetan mugimendu hauek gertatu dira:

<i>Hornidura</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Zuzkidura k</i>	<i>Erregulari zazioa</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Erretiro aurreratuagatiko saria ordaintzeko hornidura	233.203,58	0,00	- 233.203,58	0,00
GUZTIRA	233.203,58	0,00	- 233.203,58	0,00

Sozietateak horniduraren zenbatekoa erregularizatu du, 2008ko abenduaren 31n ez baita egon saria jasotzeko baldintza objektiboak betetzen dituen langilerik.



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

11. OHARRA. DIRULAGUNTZAK, DOHAINZAK ETA LEGATUAK

Dirulaguntza, dohaintza eta legatuen partidaren saldoa 99.540 euro da; ekitaldian ez da gertatu mugimendurik. Zenbateko hori 2002ko ekitaldian Arabako Foru Aldundiak Izenperen akzioak erosteko emandako dirulaguntzari dagokio (7.1.1. oharra).

Sozietateak hura ematean ezarritako baldintzak bete ditu.

12. OHARRA. ERAGIKETAK LOTURA DUTEN ALDERDIEKIN

Lotutako alderdiekin egindako eragiketak Kalkulu Guneak egindako zerbitzuak dira; ondoko taulan ekitaldiko eragiketak eta 2008ko abenduaren 31an ordaindu gabeko saldoak xehekatu dira:

<i>Erakundea</i>	<i>Zenbatekoa (1)</i>	<i>Saldoa</i>	
		<i>Zorra</i>	<i>Hartzekoa</i>
- Arabako Foru Aldundia	4.490.599,	2.396.108,0	
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	80	9	
- Gazteriaren Foru Erakundea	210.941,38	44.480,14	
- Arabako Biltzar Nagusiak	96.845,64	0,00	
- Alava Agencia de Desarrollo, SAU	88.196,53	8.783,17	
- Artium Museoa	11.699,14	6.785,50	
	6.000,00	0,00	

(1) BEZa kanpo



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

Sozietateak zerbitzuak fakturatzeko aplikatzen duen irizpidea azpikontrataturako zerbitzuen zenbatekoak bakarrik sartzea da. Ondorioz, egitura gastu guztien (funtsean, langile gastuen) balio bereko galerak sortzen dira, eta galerok bazkideek galerak konpentsatzeko egiten dituzten ekarpenekin estaltzen dira (4.5. oharra).

13. OHARRA. BESTELAKO INFORMAZIOA

13.1. Administrazio Kontseiluko kideen ordainsariak

2008ko ekitaldian Administrazio Kontseiluko kideek ez dute inolako ordainsaririk jaso; gainera, ez dute aurrerakinengatiko saldirik, ez krediturik Sozietatearekin. Era berean, Sozietateak ez du inolako betebeharririk, pentsioei eta bizitza aseguruiei dagokienez, administrazio organoko kide izan direnekin edo gaur egungo kideekin, eta ez du haien konturako betebeharririk berme gisa.

13.2. Goi zuzendaritzako langileen ordainsariak

Ekitaldi honetan, goi zuzendaritzako langileen ordainsariak 78.334,38 euro izan dira.

13.3. Administrazioaileek sektoreko beste sozietate batzuetan duten partaidetza

Arabako Kalkulu Gunea, S.Aren administrazioaileek ez daukate partaidetzarik xede bera edo antzekoa edo osagarria duen beste ezein enpresatan eta, ondoren azalduko



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

den salbuespenarekin, ez daukate halako enpresetan inolako kargurik, eta lanean ere ez dute jarduten. Hala ere, Administrazio Kontseiluko kide batzuek zuzendaritza karguak edo kudeaketarekin loturiko eginkizunak dauzkate beste foru sozietate publiko batzuetan edo erakunde publikoek zuzenean edo zeharka partaidetzako duten sozietateetan (ikus 2. eranskina). Kargu eta eginkizun horiek ez dira sartu memoriaren ohar honetan, ez baitituzte ezertan eragozten beraien arreta eta leialtasun betebeharrak, ez interes gatazkarik sortzen, Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legea eta abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sozietate Anonimoei buruzko Legearen testu bateratua aldatu dituen uztailaren 17ko 26/2003 Legeak ezarritakoaren arabera.

13.4. Auditoreen ordainsariak

Ekitaldian sozietateko kontu auditoreek sortutako ordainsarien zenbatekoa 6.167,00 euro izan da.



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

13.5. Langileak

Ekitaldi honetan enplegatuen batez besteko kopurua, lanbide kategorien arabera banatuta, hauxe izan da:

	<i>Gizonak</i>	<i>Emakumea k</i>	<i>Guztira</i>
- Zuzendari kudeatzailea	-	1,00	1,00
- Arloko arduraduna	9,00	-	9,00
- Proiektuburua	11,00	5,00	16,00
- Aholkularia	6,00	3,00	9,00
- Aholkulari teknikoa	1,00	1,04	2,04
- Analista funtzionala	9,81	10,00	19,81
- Sistema analista	17,30	3,00	20,30
- Sistema analista / Teknikaria	0,43	1,47	1,90
- Garapeneko/eraikuntzako teknikaria	1,00	1,00	2,00
- Garapen/diseinuko teknikaria	1,29	0,91	2,20
- Laguntza teknikaria	1,00	-	1,00
- Laguntza teknikaria	3,94	3,00	6,94
- Ekoizpen teknikaria	-	1,00	1,00
- Administrazio teknikaria	1,15	8,00	9,15
- Administraria			
GUZTIRA	62,92	38,42	101,34

Oharra: 6 enplegatuk erretiro aurreratua hartu dute; % 15eko dedikazioa zenbatu da.



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

1. ERANSKINA

2007KO EKITALDIKO BALANTZEA ETA GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Egoeraren balantzea 07.12.31n

ACTIVO	Ejercicio 2.007	PASIVO	Ejercicio 2.007
B) INMOVILIZADO	115.745,38	A) FONDOS PROPIOS	904.923,23
II. <u>Inmovilizaciones inmateriales</u>	0,00	I. <u>Capital suscrito</u>	808.164,70
5. Aplicaciones Informáticas	42.861,18	IV. <u>Reservas</u>	2.629,82
9. Amortizaciones	-42.861,18	1. Reserva legal	2.609,17
III. <u>Inmovilizaciones materiales</u>	0,00	5. Otras reservas	20,65
2. Instalaciones técnicas y maquinaria	16.412,05	V. <u>Resultados negativos ejercicios anteriores</u>	6.303.024,34
3. Otras instalac., utillaje y mobiliario	80.286,30	1. Remanente	6.742,80
7. Amortizaciones	-96.698,35	2. Resultados negativos ejercicios anteriores	0,00
IV. <u>Inmovilizaciones Financieras</u>	115.745,38	3. Aportaciones de socios compensación pérdidas	6.296.281,54
5. Cartera de valores a largo plazo	99.540,00	VI. <u>Pérdidas y ganancias (Pérdidas)</u>	-6.208.895,63
6. Otros créditos	14.990,73	B) INGRESOS A DISTRIBUIR VARIOS EJERC.	99.540,00
7. Depósitos y fianzas entregados a l/p	1.214,65	1. Subvenciones de capital	99.540,00
D) ACTIVO CIRCULANTE	2.968.096,01	C) PROVISIONES PARA RIESGOS Y GASTOS	233.203,58
III. <u>Deudores</u>	2.939.094,16	1. Provisiones para pensiones y obligac. similares	233.203,58
2. Empresas del grupo deudores	2.851.806,19	E) ACREEDORES A CORTO PLAZO	1.846.174,58
4. Deudores varios	0,00	IV. <u>Acreeedores comerciales</u>	1.245.827,63
5. Personal	26.087,20	2. Deudas por compras o prestaciones servicios	1.245.827,63
6. Administraciones públicas	61.200,77	V. <u>Otras deudas no comerciales</u>	600.346,95
VI. <u>Tesorería</u>	29.001,85	1. Administraciones Públicas	385.706,63
		3. Otras deudas	29.475,59
		4. Remuneraciones pendientes de pago	184.664,00
		5. Fianzas y depósitos recibidos a corto plazo	500,73
TOTAL ACTIVO	3.083.841,39	TOTAL PASIVO	3.083.841,39



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

Galera eta irabazien kontua (07.12.31)

D E B E	Ejercicio 2007	H A B E R	Ejercicio 2007
A) GASTOS	8.927.719,23	B) INGRESOS	2.718.823,60
1. <u>Consumos de explotación</u>	2.918.234,41	1. <u>Ingresos de explotación</u>	2.714.444,94
2. <u>Gastos de personal</u>	5.825.328,76	a) Importe neto de la cifra de negocios	2.714.444,94
a) Sueldos, salarios y similares	4.560.667,96	b) Otros ingresos de explotación	0,00
b) Cargas sociales	1.264.660,80		
5. <u>Otros gastos de explotación</u>	184.156,06		
		I. PERDIDAS DE EXPLOTACIÓN	6.213.274,29
II. RDOS. FINANCIEROS POSITIVOS	4.378,66	2. <u>Ingresos financieros</u>	4.378,66
		c) Otros	4.378,66
IV. RDOS. EXTRAORDINARIOS POSITIVOS	0,00	III. PERDIDAS ACTIVIDADES ORDINARIAS	6.208.895,63
		7. <u>Ingresos extraordinarios</u>	0,00
		V. PERDIDAS ANTES DE IMPUESTOS	6.208.895,63
		VI. RESULTADO EJERCICIO (PERDIDAS)	6.208.895,63



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

2. ERANSKINA

Claudio Rodríguez Gutiérrez

Arabako Kalkulu Gunea, SAko kargua: Administrazio Kontseiluko presidentea.

Partaidetza: % 0

Administratzailea deneko sozietateak:

Fernando Buesa Arena, SA

Partaidetza: % 0

Luis Latorre Murga

Arabako Kalkulu Gunea, SAko kargua: Kontseilukidea

Administratzailea deneko sozietateak:

Araba Garapen Agentzia, SA

Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa – Empresa de Certificación y Servicios Izenpe, SA

Partaidetza: % 0

Josu Zubiaga Nieva

Arabako Kalkulu Gunea, SAko kargua: Kontseilukidea

Partaidetza: % 0

Eduardo Bringas González

Arabako Kalkulu Gunea, SAko kargua: Kontseilukidea

Administratzailea deneko sozietateak:

Araba Uraren Agentzia, SA

Arabako Lanak, SA

Naturgolf, SA

Hazibide, SA

Partaidetza: % 0

Izaskun Martínez de Lahidalga Pinedo

Arabako Kalkulu Gunea, SAko kargua: Kontseilukidea

Administratzailea deneko sozietateak:

Sociedad Anónima de Gestión de Patrimonio Cultural Edificado de Álava – Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietate Anonimoa (Arabarri, SA).

Partaidetza: % 0

Juan José Yarritu Ruiz de Gordejuela



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

Arabako Kalkulu Gunea, SAko kargua: Kontseilukidea

Administratzailea deneko sozietateak:

Naturgolf, SA

Araba Uraren Agentzia SA

Arabako Lanak, SA

Partaidetza: % 0

Hernando Lacalle Edeso

Arabako Kalkulu Gunea, SAko kargua: Kontseilukidea

Administratzailea deneko sozietateak:

Naturgolf, SA

Gasteizko Aireportua Sustatzeko Bidea, SA

Araba Garapen Agentzia, SA

Centro de Empresas e Innovación de Álava, SA – Arabako Eraberrikuntza

Industrialdea, AB

Hazibide, SA

Asparreneko Elkartegia, SA

Arabako Teknologi Parkea, SA

Laudioko Elkartegia, SA

Partaidetza: % 0



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.

“ARABAKO KALKULU GUNEA, S.A.”

KUDEAKETA TXOSTENA – 2008KO EKITALDIA

Sozietateak informatikarekin, oro har, loturiko jarduerak aspaldiko urteotan eraman izan dituen muga normalen barruan mantentzea espero du. Momentu hauetan ez dago inolako arrazoirik ez inguruabarrik haietan eragin kaltegarria izan dezakeenik.

Ekitaldi hau amaitu eta gero, eta nahitaezko urteko kontuak aurkeztu arte, ez da ezagutzen inolako gertaera aipagarririk Sozietatearen irudi zehatza emateko garrantzizko informazio gehigarria eskain dezakeenik.

Informatikarekin oro har loturiko ekintzak aurrera eramatean datzan gure jarduerak jarraitu du informatika programa berriak ezartzeko eta funtzionamenduan dauden postuak hobetzeko ildoan, haien kalitatearen etengabeko kontrola indartuz, eta kostuak benetan murrizten saiatuz.

Sozietateak ez du transakziorik egin bere kapitala osatzen duten akzioekin.

Negozio zifraren gehikuntza informatika aplikazioen mantentze eta hobetze jarduera handiagoa egitearen ondorioa da.

Ekitaldiko galerak, batez ere sozietatearen gastu finkoek edo egitura gastuek sortuak, funtsean enpresako lan hitzarmenaren aplikazioagatik handitu dira.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 11.

Sozietate Anonimoei buruzko Legearen testu bateratuko 171. artikuluan eta Merkataritza Erregistroaren Arautegiko 330. artikuluan ezarritakoari jarraiki, 2009ko martxoaren 27an, Gasteizen, **ARABAKO KALKULU GUNEA, SA**ren administratzaileek honi erantsitako urteko kontuak sinatu dituzte. Kontuen osagaiak ondokoak dira: Balantzea; Galeren eta irabazien kontua; Aldaketen Egoera Ondare Garbian; Eskudiru fluxuen egoera; Memoria (1 - 13 bitarteko oharrak; 1 - 25 bitarteko or.); Kudeaketaren txostena (26. or.).

Claudio Rodríguez Gutiérrez jn.
Presidentea

Luis Latorre Murga jn.
Kontseilukidea

Eduardo Bringas González jn.
Kontseilukidea

Izaskun Martínez de Lahidalga Pinedo and.
Kontseilukidea

Josu Zubiaga Nieva jn.
Kontseilukidea

Hernando Lacalle Edeso jn.
Kontseilukidea

Juan José Yarritu Ruiz de Gordejuela jn.
Kontseilukidea

Manuel Martín Grande jn.
Idazkaria (ez da kontseilukidea)